Sagar jusa

Joan den astean, Abadiako eremuan, Hendaiako gune babestuan (kontserbatze sagardian), sagar biltzean ari izan gara CP eta CE1eko ikasleekin.
Ehundik gora sagar barietate (Rosalia, udare-sagar,...) eta berrogeita hamar bat gereziondo mota (Xapata, Itsasuko gerezi beltza,...) dira sagardia horretan.
Lurrera erori ziren sagarrak bildu ondoren, ikasleek urean garbitu dituzte eta tresna batean botatu, xehatzeko.
Sagar guziak xehatu ondotik, eskuzko prentsa batean ezarri dituzte eta jusa ateratzen hasi da. Ikasleen baita ere Jon eta Mikel gure giden indarra baliatuz sagar jusa ezin onagoa, beltxarana atera da.
Bistan dena, arratsalde hori ongi bukatzeko, gure ekoizpena segidan dastatu dugu. Denek biziki ona atzeman dugu eta gozatu...
Gelditzen ziren sagarrak (jusik gabe), kanpoko abereentzat botatuak izan dira.

Milafrangako Bihotz Sakratua eskolako 2. zikloko ikasleak

Andra Mari eskola Lurraman

2025eko azaroaren 7an, ostiralarekin, Lurramara joan gira eguna pasatzera. Han piknika jan dugu eta taller batzu egin ditugu:
1) Gasnari buruz inkestak egin ditugu eta bukaeran gasna jastatu dugu.
2) Arraineri buruz gauzak ikasi ditugu, halen izena, halen garapena eta haien bizilekua.
3) Mahain jokoak egin ditugu, ikasi ditugu bi joko "*Ie fou fou fou*" karta jokoa eta "Wasabi" dado jokoa.
CE1 eta CE2ko ikasleek tailerrak bukatu dituzte, asto ibilaldia eginez. Ber denboran handiek tailerrak bukatu ditugularik erakusketen ikustera joan gira. Hasteko, ardi baten ekografia so egin dugu eta artzainak umedun zela ikusi du.
Ondotik begiratu dugu nola ileak eta azazkalak mozten zituzten. Gure hirugarren erakusketarentzat, ikasi dugu nola egiten den gasna eta oroitzen gira, lehenik esnea berotu eta pausatu behar dela, gero nahasi behar dela eskuekin, ondotik gasna molde batean ezarri behar dela eta eskuekin zapaldu esne ttipia kentzeko eta bukatzeko utzi behar dela idortzen 6 hilabetez. Azken animazioentzat, artzain xakur batek erakutsi du nola biltzen dituen ardiak eta haurrek sokatira egin dute astoen kontra. Sorpresarik gabe astoek dute irabazi.
Aukera izan da ere animale anitz ikusteko: xerrikumeak, xerriak, lapinak, pottokak, ardiak, axuriak eta marroak. Zinez egun bikaina pasa dugu, milesker Lurrama!

Mugerreko Andra Mari eskolako ikasleak



Kantore eta müsika Altzaiko eskolan

Maskaradatik landa igaran urtean, aurten deliberatü dügü kantore eta müsikaren üngürüan lan egitea urte güzian. Hala nola hasi gira lehen garai hontan, lan egiten Mauleko müsika eskolarekin. Soizic erakaslea, lau aldiz izan da gure eskolan.
Harekin, atelier desberdinak jarraiki dütügü: lehenik, hiru müsika tresna familien ezagütza egin dügü: haize tresnak, perküzioak eta harizko müsika tresnak (müsika desberdinen behatzez, bideo so egitez...).
Ondotik, ikasi dügü gure korpitzaren igiazten müsika batekin: zale müsika azkar zelarik, baratx müsika anple zelarik. Eta ürrentzeko, ikaski dügü nola jarraiki behar den orkestra züzendaria perküzio edo müsika tresna batekin müsika egiten dügülarik.
Zinez interesgarri zen eta inbea eman deikü gei horrekin jarraikitzea urte güzian!

Altzaiko San Luis eskola



Goiz polita azaroaren 7an Miarritzen

Gure gelak laborantza herrikoiaren azokara bisita egin zuen. Lurrama deitzen da.
Lehenik gure irakasleak azaldu zigun zer irudikatzen zuen azoka honek. Ulertu dugu lurra zaindu behar dugula elikatzen eta babesten gaituelako. Horretarako kontent ginen joatea.
Azokan, animalia asko ikusi genituen. Hasieran ahuntzak jetzi eta animaliak ferekatu genituen. Ondotik elikadurari buruzko tailerra egin genuen eta ulertu dugu garrantzitsua dela jaten duguna zaintzea eta hurbileko produktuak erostea.
Egia erran mahai-jokoen tailerra egitea ere asko maite genuen. Baina gehien maitatu genuena astoarekin egindako ibilaldia izan zen. Denok irriz ari ginen.
Azkenik, eskolara itzultzean, autobusean kantatu genuen eta eguraldi ederra zelako gure piknika jostaldi lekuan egin genuen. Goiz ederra izan zen eta denok ongi pasa genuen.
Zein oroitzapen bikaina izan zen hori!

Ziburuko San Mixel eskolako CM1 mailako ikasle elebidunak